



B22/0615 ZDN. EBAZPENA

Tabernen ordutegia 2 orduz luzatu ahal izateko 2023rako jaiegunak izendatu.

Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legeak –Autonomia Estatutuaren 10.38 artikuluan aurreikusitako eskumena baliatuz onartu baitzen–, 18.a) artikuluan, ahalmena ematen dio Jaurlaritzari establezimendu publikoen ordutegi orokorra zehazteko, oreka zainduz dibertsiorako eta aisialdirako jarduera legitimoen eta enpresariak bere jarduera egiteko duten eskubidearen eta herritarren atsedenerako eta lasaitasunerako eskubidearen artean, eta kontuan hartuz, besteak beste, nolakoa den establezimendua, ikuskizuna edo jolas-jarduera eta zer urtaro edo urte-sasoi den, eta hark ezarriko ditu ordutegiaren luzapenak edo murrizketak ere.

Aipatutako 18. artikuluen 3. atalak, berriz, eskumena ematen die udalei jaiegunetan edo bestelako gertakizunetan establezimenduen ordutegi orokorra luzatzeko, arau bidez aurreikusitako egoeretan eta moduetan.

Bestetik, otsailaren 5eko, 17/2019 DEKRETUAK, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena 37. artikulua egun berezi batzuetan ordutegia luzatzeko, gehienez bi orduz, ahalmena ematen die udal agintariei; hau da jai-egunetan edo udalak zein autonomia erkidegoko organo eskudunek interes turistikoa duten gertakariak daudela jotzen duten egunetan: ospakizun publikoak, izaera sozialeko gertakariak, azokak, lehiaketak, erakusketak edo antzekoak.

Xedapen horiek guztiak kontuan izanik, gaia 2022ko abenduaren 20ko Batzorde Orokorrean aztertu eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak emandako eskumenak baliaturik, hau **XEDATU DUT**:

LEHENEA.- Onestea 2023. urtean Getariko udalerriaren barruan jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak ixteko ordutegia bi ordu luzatzea egutegi honetan aipatutako egunetan:

Ordutegiaren luzapena 2023an:

- Urtarrilaren 5a, Errege bezpera
- Urtarrilaren 14a eta 17a: San Anton Jaiak
- Otsailaren 18a: Inauteriak
- Maiatzaren 5a: Antxua eguna
- Ekainaren 3a: Euskal Jai eguna
- Ekainaren 23a: San Juan bezpera
- Abuztuaren 4, 5, 6, 7 eta 8: Zaindariaren jaietan (Salbatoreak)
- Abenduaren 24a: Gabon gaua
- Abenduaren 25a: Eguberri eguna
- Abenduaren 31a: Urte Zahar Gaua

BIGARRENA.- Dekretu hau sinatze dataren biharamunean jarriko da indarrean, eta udalaren web-gunean argitaratuko da.

Sinatzailea:	ALKATEAK HARITZ ALBERDI ARRILLAGA
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eu/PortalV/r/0/39/AAA3V56K.Mjzf	
	